

genuen, eta etzitzaigun damutu jez!... Itzak eziñ aditzera eman lezake guk bidean ekarri genuen poza. Gaur oraindik nerekin daukat. ¡Bai! Zerurik ezpaltz ere, ezta gizonarentzat gizonari bere nekeetan laguntzea bezelako festik.—»

Au esanik, jaió zitzaion malko dizdizari bat, eta besoetan zeukan illobachorik gazteenak chukatu zion. ¡Zorioneko aitona!

Ondarribiko gazteak: oraindik irakurgai onen berri ezpadakizute, ikasi zazute ¡bai! zuen onerako.

Gure Euskal-erria, gure oiturak, legeak, kondairak, irakurgaiak, dena izangoda ¡aztuá! mundu nasi onekin batean denboren buruan; bakarrik aztuko eztana sekulan, denborik ezagutuko eztuena, da, Jaunaren amorioz gure lagun-urko edo projimoari egintako mesedeá.


¡A!... eskabitzate gizon jakintsuak beren errientzat, nai dituzten aiña gauza; nik, Euskalduna, eskatzendiot Ama Birjiña Guadalupekoari, guretzat eta beste guzientzat, zabaldezala Lurrean karidadezko izpiritua. Au gabetanik, izango bagenitu ere nai ditugun gauza guztiak, ezgiñake ondo izango; baña onekin, sufrimenturik garrazenak igarotzen dira atsegintasun gozoan, eta, itz batean esateko: gizonak izutzendu doakabea, ez doakabeak gizona.

ANTONIO ARZÁC ETA ALBERDI.

(De la REVISTA EUSKARA)


## SECCION AMENA.

III,<sup>garren</sup> MUTADI EDO ISITZA.



*Askantza urrengo lumero edo liburuchóan.*

cioso zortziko titulado *Aritzari*, del maestro basco-navarro Sr. Zabalza, que aquella excelente Revista regala á sus suscritores.



Vemos con placer en los periódicos de Sevilla que nuestros distinguidos paisanos los reputados directores de orquesta Sres. Zabala y Ortiz han conquistado extraordinarios aplausos en el teatro de San Fernando, por la magistral interpretacion que han sabido dar á cuantas obras han dirigido.

Les felicitamos cordialmente.

---

## SECCION AMENA.

### ¿ZEIN DA?

Loyolako baserri  
 ingurubatian  
 lapur batzubek zeuden  
 juandan arratzian  
 Alegiñak egiten  
 zebiltzan atian  
 altzuten isillena  
 irikinayian.  
 Eche jabeak zerbait  
 zubenian aitu  
 leyuan agertuzan  
 ojuka.—Barkatu  
 bañan obedezute  
 gerogo bueltatu,  
 oraindikan ez gera.  
 jaunak oyeratu.

M. SOROA.

---

III.<sup>garren</sup> MUTADI EDO ISITZAREN ASKANTZA:

*Arraiak joan ta sarea bota.*

## SECCION AMENA.

### OKULLUTUK OJUKA.

—¡Mutill, zer diabru zaik  
gaur iri pasatzen,  
ez alde illunbetan  
ojurikan aitzen?

—¿Zer dú, orla bullaka?  
¿Zer dú, orren zakar?

—Krisellubat ekartzak  
sukaldetik azkar;  
¡agudo, egin gabe  
orrenbeste jardun!


—¿Dukesen bat aldago  
estutua aurdun?

—Ez niyon ekarri nai  
argiya lenago?

—Mutill, gaur beintzat ondo  
jarduneko ago.  
Mandua aritu dek  
dir-dar ostikoka,  
arrapatzen zuena  
gusto aundiz joka;  
Argatikan naidiat  
egitia argi,  
ikusteko jo daben  
parea edo ni.

V. IRAOLA.

IV. <sup>garren</sup> MUTADI EDO ISITZA.



Askantza urrengo lumero edo liburuchuan.

## SECCION AMENA.

## JOSÉ BENITO-RI

## BALANTZAKA.

Ardo leku batetik  
 aterazan Anton  
 ezin somaturikan  
 nola chutik egon.  
 Ikusten zubelako  
 neskach edo gizon  
 arbola guztiari,  
 esanikan «gabon».  
 Pipa pištu nairikan  
 pošpolo guztiak  
 itzalzen zizkan beti  
 bere asnasiak.  
 Euskaldun kanta zarrak  
 etzituben aztu  
 eta bost minutuban  
 dozena bat nastu.  
 Egiten zuben ere  
 batzubetan chistu  
 bañan ¡ay! piparikan  
 ezintzuben pištu.  
 Orla kaja guztiya  
 ustu zubenian  
 pipachua sarturik  
 boina barrenian


izketan bere moduz  
 asizan bidian  
 denbora pasatzeko  
 bakartasunian.  
 Etzegon bakarrikan  
 bazuben laguna  
 ez dakit nik Erdaldun  
 edo Euskalduna  
 orrengatik egiten  
 zuben ark jarduna  
 (arbol bati—gabon,  
 ja zer gau illuna!)—  
 —Esan ditek tabernan  
 Galileo jauna  
 zala... zala... bai... ori...  
 gizon jakintzuna.  
 Pasa zuben biziya  
 eziñ asmatuik  
 mundubonek ematen  
 oteduben bueltik.  
 Orrenbeste denbora  
 biar gabetanik  
 pichar bat ardorekin  
 ikasi diat nik.

M. SOROA.

IV.<sup>garren</sup> MUTADI EDO ISITZAREN ASKANTZA:*Ardo gozoak lau begi eta oñik ez.*

Varias señoras de esta ciudad han repartido prendas de vestir y dado de comer á los presos de la cárcel y del Castillo.

Obras de esta naturaleza son dignas del mayor elogio.



De un artículo publicado por nuestro apreciable colega *El Noticiero Bilbaino*, copiamos el siguiente párrafo:

«Perdónennos los lectores de *El Noticiero Bilbaino* estos recuerdos de lo pasado que han salido involuntariamente á la pluma, y volvamos á recoger ya por segunda ó tercera vez dos hojas de laurel caídas á la inclemencia del *bisiesto*, las cuales han dejado un vacío difícil de llenar en la vida científica y literaria de nuestro país, que son: el jóven y malogrado director del EUSKAL ERRIA, de San Sebastian, DON JOSÉ DE MANTEROLA, y el anciano é infatigable desenterrador de antiguas glorias euskaras D. NICOLÁS DE SORALUCE, sobre cuyas dos tumbas depositamos hoy de nuevo, no en nuestro sólo nombre, sino en el de toda la tierra vascongada, la triste ofrenda de nuestro cariño y gratitud.»

I.<sup>ko</sup> MUTADI EDO ISITZA.



Askantza urrengo lumero edo liburuchoan.